# Egin IRRIAren HARPIDETZA...

## eta jaso CD ipuina edo DVDa opari!

### 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzako aldizkaria

## GOZATU IRRIA!




## URTEAN 53 euro!

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz

harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz

www.irria.eus/harpidetza-n izena emanez

Orain, **www.irria.eus**-en topatuko dituzu IRRIAren edukiak eta euskarriak!




IRRIEN LAGUNAK

berria ekar Katxiporreta

ELKAR 78-1.indd 2 4/11/24 9:11




EXPRAI




# Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
flickr elkartaldea
elkar_taldea
elkarTaldea
postdata.elkar.eus

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33





# UXUE ALBERDI




**HETERO**
Uxue Alberdi
SUSA

**Bere ibilbideko zazpigarren liburua (helduentzat) argitaratu du Uxue Alberdik, hirugarrena ipuingintzan: *Hetero* (Susa, 2024). Aurreko narrazioetan baino hurbilago sentitzen da Alberdi honako hauetan bere musika propiotik: gordin eta goxo, gogor eta bigun, aldi berean.**

**Zortzi ipuin bildu dituzu *Hetero*n. Nolakoa izan da liburua osatzeko prozesua?**
Hiru urtetan zortzi ipuin idatzi ditut; ez dago deskarterik, daudenak dira. Nire idazteko moduarekin zerikusia badu, agian. Ez dut aurrera egiten zerbait gaizki dagoela sentitzen badut. Ipuinak ito egiten banau, seinale txarra. Normalean segituan konturatzen naiz: gorputzak esaten dit zerbait ez dagoela ondo, eta ondo ez egote horrek askotan esan nahi du ez diodala heldu niretzat benetakoa den leku batetik, edo badagoela zerbait inpostatua ahots horretan. Ondo dagoela sentitzen dudanean, idazketak "ireki" egiten nau, hor jarraitu nahi izaten dut, sentitzen dudalako bide horretan egiazko zerbait mugitzen zaidala, eta deskubritu nahi dudalako zer den eta bidea nora doan.

**Zein izan da ipuinen abiapuntua?**
Ipuin askotan abiatu naiz zirrara eragin didaten bizikizunetatik. Markaren bat utzi didaten paisaia eta jendeetatik. Izaten dira halako momentu batzuetatik non nire buruari esaten diodan "honetaz idatzi behar dut", jakin gabe noiz, jakin gabe ipuin bat izango zen edo beste zeozer. Inpaktatzen gaituzten gauzekin hori egiten dugu gure espezieko batzuek. Errealitatea liseritzeko nire moduetako bat errealitate hori idazketatik pasatzea da, normalean ez berehala. Badago memoria bat oraindik idazteke dauden paisaiak, pertsonak, momentuak gordetzen direna eta gutxien espero duzunean azaleratzen dena.

**Izenburuaz galdetu behar dizut, noski.**
Liburu pila bat daude hau bezain heteroak, hetero hitza inon aipatu ez arren: literatura unibertsala liburu hete-




ELKAR 78-1.indd 4 4/11/24 9:11

roz beteta dago, baina ez da hori markatu izan. Bertigo apur bat ematen zidan izenburu hori jartzeak, ze argi bat isurtzen du ipuin guztien gainean, eta badakit irakurketa baldintzatzen duela; baina beste alde batetik iruditzen zait hala behar zuela. Heteroarauaren barruan mugitzen diren pertsonaia horiek guztiek beren min, premia eta inertzia partikularrak dauzkate, eta literatura zingira horretan mugitzen da, hau ez da saiakera bat, ezta heteroarauari buruzko liburu bat ere, baina nik bide hau egin ahala, ipuinak idatzi ahala, idazketak berak lagundu dit gauza batzuen kontzientzia hartzen.
Aldi berean, nire betiko gaiak dira, *Jenisjoplin*en edo *Kontrako eztarritik*en ere hitz egiten nuen gai hauei buruz, baina beste era batean. Heterok balio izan dit fikzioaren bitartez erradiografia pertsonal bat egiteko. Atzera begiratu eta ohartzen naiz nire sistema emozionala, erotikoa, psikologikoa eta ekonomikoa heteroarauaren barruan egituratuta dagoela.

**Nik, egia esan, transfeminismoak eta kuir mugimenduak egin duten ekarpenarekiko aitortza gisa ere ikusten dut.**
Jakina baietz, aurrez bolleren lana egon ez balitz liburu honek ez luke *Hetero* izenburua izango. Eta uste dut, gainera, sistema horretan norbere lekua kuestionatzeak aberastu egiten dituela ipuinak. Heteroaraua biolentoa da, batez ere, ez-heteroentzat, noski, baina baita heteroki mugitzen diren emakumeentzat ere. Beste alde batetik, ordea, iruditzen zait erosoa izan daitekeela gizonak bakarrik seinalatzea, eta ez ikustea nola mugitzen diren nire protagonista emakumeak heteroarau horren barruan, ez galdetzea noiz arte dauden eroso, noiz hasten diren deseroso sentitzen. Niretzat hori *temazo* bat da. Pertsonaiek ez badute jokoa uzten, jokoan egoteak konpentsatzen dielako izango da; baina noraino konpentsatzen die? Konpentsatzen ez dienean nola irakurtzen dute heteroaraua? Eta deseroso daudenean bakarrik irakurtzen al dute?
Hala ere, nik ez ditut ipuin hauek heteroaraurekiko erantzun moduan sortu. Nire zaurien, ezinegonen, zirraren erantzuna dira, marka bat utzi didaten tokien, harremanen eta bizikizunen elaborazio literarioa.

**Pozik zaude emaitzarekin?**
Bai. Bilaketa luzea izan da bai nire baitako memoria afektiboan eta bai teknika narratiboetan ere, eta sentsazioa daukat asko ikasi dudala. Ipuin bakoitzari behar adina denbora eskaini diot, batere presarik gabe. Nire lehenengo ipuin liburutik bigarrenera, *Aulki bat elurretan* hartatik *Euli giro*ra, uste dut saltoa dagoela. Lehenengoa jolasa izan zen, itsumustukoa; bigarrengoan uste dut ipuinak hobeak direla, baina ez direla erabat "nire arropak". *Hetero*n sentitzen dut baietz, badirela; ipuinen elaborazio-maila sakonagoa da, eta aldi berean doituagoa nire musikara.

> *"Heteroarauaren barruan mugitzen diren pertsonaia horiek guztiek beren min, premia eta inertzia partikularrak dauzkate, eta literatura zingira horretan mugitzen da"*



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: CONNY BEYREUTHER

**Nabaritzen da egin duzun lana. Besteak beste, estilo narratibo ugari baliatu dituzu.**
Hiru urte hauetan ipuin pila bat irakurri ditut, eta kontatu nahi nuen istorioa nola kontatu, askotan, irakurketen eta berrirakurketen bidez aurkitu dut. Truman Capoteren ipuin dialogatuak, Lorrie Mooreren alderantzizko kronologiak eta beste asko izan ditut inspirazio.

**Azkenik, etxeko marka: hizkuntzaren aberastasuna eta zorroztasuna, eta hizkerarekiko arreta. Lehendik zetorren, baina hemen koska bat estuago dagoela iruditu zait.**
Alde batetik bada azken urteetako lanaren jarraipen bat; oso modu diferentetan baina entzumenari eta belarriari jarraika idazteko ariketa bat baino gehiago egin ditut, arreta handia jarri diot jendeak hitz egiteko daukan moduari. Hizkera bat harrapatzen duzunean testuari benetakotasun handia ematen diola uste dut, musikalitatea, berbakera bakoitzak eramaten zaitu gorputz jakin batzuetara, geografia batzuetara, botere-posizio zehatz batzuetara, eta uste dut, beste gauza askotan bezala, gure hizkerek ezaugarritzen gaituztela, eta pertsonaiak ezaugarritzeko modu aberatsa eta ederra izan daitekeela. Ipuinak euskara batuan idatzita daude, jakina, baina zipriztinduta daude ipuin horietako asko, adibidez, *Ukitzen gaituen ura* ipuinean *euskañola* dago, euskara eta gaztelania nahasiz hitz egiten dute pertsonaia batzuek, eta hori bada nire haurtzaro eta gaztaroko paisaia sonoro bat orain arte literaturara eraman ez nuena.

**DANELE SARRIUGARTE**
Idazlea



BARREN-BARRENEAN

# IDAZLEA BERE BAKARDADEAN



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Idazleak hain garenez astunak, noizbait entzungo zenuten gutarikoren bat Idazlearen Bakardadeaz hitz egiten, letra larriz eta modu apur mistikoan, eta zuei ez dakit, baina niri beti egiten zait arraroa. Besteak beste, ni neu ez naizelako inoiz idazterakoan bakarrik sentitu, bizirik eta neurekin sentitzen ditudan fikziozko gizon eta emakumeen konpainia noblean baino. Baina esan beharrik ez dago ez garela denok berdinak eta ulertzen dut edonor sentitu daitekeela bakarrik. Ez dakidana da Idazlearen Bakardade hori zenbateraino den berezia. Irakurtzerakoan ere bakarrik egon ohi gara eta ez dugu Irakurlearen Bakardadeaz hitz egiten, beharbada kasu horretan ere ez gaudelako hain bakarrik. *Uda batez Madrilen* zoragarrian (Franciscana Aranzazu Editorial, 1977), **Bitoriano Gandiaga**k kontatzen du Arantzazun ikasle zela, gau askotan sartzen zela bere gelara zaintza egiten zuen abadea, "hemen zenbat zaudete!" aldarrika, eta ez zuela berarekin beste inor topatzen baina gela hura *On Kixote*ko pertsonaiekin beteta zegoela.

Beste profesional batzuekin alderatuta ere, ez dakit nik gure bakardadea zenbateraino den handiagoa. Ez dakit ezta ere ba ote dagoen munduan bakardade maila bat eskatzen ez duen lanik. Zalez inguratuta, taldekideak zelaian dituela, eta entrenatzailea metro batzuetara, egongo dira futbol jokalari batek bakarka baino hartu ezin dituen erabakiak.

Idazlearen lana hori baino bakartiagoa da, baina ez horrenbeste. Entrenatzailerik ez daukagula dioenak, adibidez, ez du editore on bat ezagutzeko zoriona izan edo ez du pribilegio hori aprobetxatu. Taldekideak ere egon badira. **Terry Pratchett** eta **Neil Gaiman**ek batera idatzi zuten *Buenos presagios* (Timun Mas, 2012), eta idazlea zenbateraino izan daitekeen talde bateko partaide jakin nahi duenak ez du **Harkaitz Cano** baten karrera errepasatu baino. Altxorrak topatuko ditu. Besteak beste, atal hau ilustratzen duen **Antton Olariaga** eta **Jexuxmai Lopetegi**rekin egindako *Itzal Zaunka* (Elkar, 2016) sailkaezin eta ahaztezina.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Egia da idazle batzuk oso bakarrik egon direla. Askotan bakardade heroiko batean idatzi behar izan dutela. Baina ez idazleak bakarrik. **Atxaga**ren eleberri ezagunaren tituluak dioen moduan, askotan dago bizitza honetan *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 2003). Baina lagunak izateko modu bakarra laguna izatea den moduan, taldekideak nahi dituen idazleak taldea aukeratu eta defenditu beharko du. Aurreko belaunaldiaren, iraganeko arbasoen, edo gustatzen ez zaizkion idazleen kontra hitz egin beharrean, bere belaunaldikideen, idazle gazteagoen, edo gustuko liburuen alde hitz eginez, adibidez. **Orixe**k *Santa Kruz apaiza* defenditu zuen bezala defenditu zuen gero Orixe **Joxe Azurmendi**k (*Zer dugu Orixeren alde?* Ediciones Franciscanas Arantzazu, 1977). *Erbestetik barne-minez* (Susa, 2000) bilduman jasotako gutun zoragarrietan, **Andima Ibiñagabeitia**k gustuko literaturaren alde idazteko borondatea adierazten zion **Jon Mirande** lagunari, gustuko ez zuenaren kontra hitz egin beharrean, eta ez dut esango perfektua denik baina bakarrik sentitu nahi ez duen idazlearentzat metodo interesgarria izan daiteke.

Zaleei dagokienez, egia da ez daudela hor, begira, idazten dugunean baina idazleak bere lana ondo egiten badu, hor egongo dira, moduren baten. Idaztea zer esan nahi dugun jakiteaz gain, zer esan dugun jakitea ere badelako, eta horretarako irakurle futuroak moduren batean konbokatu behar ditugu.

Ez dugu bakardadean idazten, hori da esan nahi dudana. Eta, hala ere, idazten dugunean bakarrik egon behar dugu. Sormen prozesua blokeatzen duen arazo nagusietako bat sorbalda gainean begira sentitzen ditugunentzat idaztea delako –gurasoak, kritikoak, dena delakoak–, geure baitako ahotsari obeditu beharrean. Hori esan nahi zuen **Virginia Woolf** handiak *Gela bat norberarena* (Consonni, 2012) idatzi zuenean. Badagoela geure baitan geurea baino ez den soberaniazko leku bat, eta literatura maite dugunok leku horretatik idatzi behar dugula, maitasunez, eta leku hori defendatu, geure maitasun guztiarekin.



ELKAR 78-1.indd 7 4/11/24 9:11

# JOSEBA ZULAIKA

**“Ez aurrera eta ez atzera egiten ez den egoera” da, hiztegiaren arabera, inpasea. Eta egoera horretan ikusten du Joseba Zulaikak Euskal Herria. *Aberriaren inpaseak* (Alberdania) saiakeran aztertu ditu euskal politikan, gizartean eta kulturan sumatzen dituen itopuntuak.**



© ALBERDANIA

> *“Euskaldun izateko modu desberdin eta konplexuagoak sortzen ari dira”*




**ABERRIAREN INPASEAK**
Joseba Zulaika
ALBERDANIA

**Urte askoan Euskal Herritik kanpo bizi ondoren, Getariara itzuli zinen. Zer aldatu da?**
Euskararen egoera, eta euskara bera, hasteko: malgutu eta asko aberastu da. Euskal politika ere bai: ETAren amaierak lehena eta oraina markatzen ditu nire belaunaldiaren historia politikoan. Euskal gizartearen bizitza maila ere mejoratu egin da. Euskaldun subjektibitate desberdin eta konplexuagoak sortzen ari dira, neurri handi batean feminismoak eta LGTBI mugimenduak bultzatuta. “Bai, baina….”, entzungo duzu segituan zerbait positiborik esaten baduzu euskararen edo politikaren edo euskal erakundeen egoeraz. Aurrerapen handiak egin ditugu, baina “dena egiteko dago oraindik”.

**“Ez gaude Iraultza garaian. Ez gaude Erreforma garaian. Nire tesia da inpase garaian dagoela euskal politika eta gizartea”, diozu liburuan. Zer da, baina, inpasea?**
Bi aukera saihetsezinen aurrean erabaki beharra, eta jakitea bi alternatibek ondorio mingarriak izango dituztela. Nola irten ez dakizun egoera bat. Bi posibilitate dituzu: edo paralizatuta gelditu edo nola-hala jauzi bat asmatu. Ikasketa oro horrelako jauzi baten ondorioa da. Nire premisa da Euskal Herria egoera horretan dagoela kulturan eta bizitzako esparru oinarrizkoetan. Erronka historikoak ditugu eta inoiz ezagutu gabeko oportunitateak.

**Feminismoak euskal nortasuna ulertzeko zenbait moduri eragin dizkion deserosotasunak ere aztertu dituzu, alardeen aferari eta bertsolaritzari buruzko kapituluetan.**
Tradiziotik jaso ditugun paradigma kulturalentzat eztandarik nabarmenetakoa da feminismoa. Kultura berri baten eta subjektu desberdinen exijentzia jartzen du mahai gainean.

**Euskalduntasuna ulertzeko modu kontraesankorraz ere hitz egiten duzu: desberdin izan nahi eta, aldi berean, besteen berdin. Aska liteke korapilo hori?**
Kritiko naiz antropologoek izan dugun eginkizunarekin euskal identitatearen exotizatze eta fetitxizatze horretan. Euskalduntasuna "arraza"ren arabera definitu genuen hasieran eta, ondoren, "etnia" moduko nozio naturalizatzaileekin jarraitzen dugu, euskaldun inguruko guztia “salbuespen” gisa proiektatzen, euskal kultura erdaraz ala euskaraz egin bi mundu guztiz desberdinekoak direla planteatzen, eta abar. Nori interesatzen zaio museoko pieza den kultura hori? Planteamendu hauek inpaseetara garamatzate eguneroko tratuan eta kultur sormenetan.

**Politikaren arloan, “antagonismo frontala” alde batera geratu da Euskal Herrian zure iritziz.**
Beti ezagutu dugun borroka politikoa antagonismo harremanean oinarritua izan da. Baina orain Bildukoek ere Madrilen sozialistekin politika egiten dute, nahiz eta garbi egon euren helburu politikoak oso kontrakoak direla. Kontrakotasunak ez dira nahitaez antagonismoak. Antagonismo harremanak ez du borroka beste konponbiderik; inpase egoeran, bi blokeek konponbide baten beharra dagoela ikus dezakete. Espazio berriak irekitzeko parada eskaintzen du antagonismoa zegoen tokian inpasea ikusteak.

**GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**
Kazetaria

“
**Kontatzen ez bazara, kontatzen zaituzte.**
*Katixa Agirre*

Bada esaldi bat pentsamendu bakoitzarentzat...

**Badakizu?**

Egin zaitez Jakinkide

**Urtebetez doan.**
Paperean edo digitalean etxean jasoko duzu.

Jakin dabilen pentsamendua




© EDICIONES B

**_Cuando llega la noche_ es un libro en el que conviven tres novelas cortas que Mikel Santiago escribió hace entre diez y quince años, y que vieron la luz a través de un blog. Es un lugar lleno de tensión narrativa, de miedo, de suspense y de misterio que conectará con los lectores a través de las emociones más humanas.**

**¿Cómo afronta la publicación de unos relatos que escribió para que se publicaran en un pequeño blog y que sabe que ahora leerán miles de personas?**
En estos relatos habitan con mayor intensidad mis referencias más nativas, más primigenias, como **Stephen King**, **Edgar Allan Poe**, **Patricia Highsmith** o **Alfred Hitchcock**. Se van a notar mis referencias, y también mis propias ideas sobre sus enfoques.
Así empecé realmente, esto converge en mi libro *La última noche en Tremore Beach*, que es una novela que tiene mucho componente fantástico y de thriller psicológico. Creo que van a gustar, son buenos relatos, están redondos, y espero que diviertan a la gente, igual que el resto de mis novelas.

**En *Cuando llega la noche* hay thriller, hay tensión, pero también hay culpa, amor, terror y experiencias oníricas…**
Quien abra el libro se encontrará con tres historias, cada una muy diferente. Una trata sobre la culpabilidad, sobre un hombre que no ha probado el amor, porque está totalmente enfocado en su carrera. Es casi una psicopatía. Un día el amor llama a su puerta de una manera bestial, casi como un tsunami. Y esto tendrá unas consecuencias gravísimas.
*Noche de Almas* es una historia que me refirió un mochilero que estuvo viajando por Sudamérica sobre una casa abandonada en medio del desierto, y la mujer que la regentaba. Pero en el libro la cosa se complica, no es recomendable salir de casa por las noches, hay que protegerse en un círculo de piedras.




**CUANDO LLEGA LA NOCHE**
Mikel Santiago
EDICIONES B

Y, finalmente, tenemos una historia que escribí casi casi desde la ventana de mi casa en Dublín, inspirada en una casa abandonada y en unos vecinos de aquella época. Es una historia sobre sueños entrecruzados, sobre personajes misteriosos que salen a la calle cuando nadie mira.

**¿Qué les diría a quienes consideran que el thriller es un género denostado?**
Que nos vayamos a la historia de Jesús y cómo fue perseguido, o a Ulises y *La Ilíada*… Las historias de tensión y curiosidad siempre han estado ahí. El thriller no está denostado. Sí es cierto que ha pasado por diferentes transformaciones y etapas. Pero yo creo que es un pulso humano consumir este tipo de historias, porque nos ayudan a ensayar emociones, que es al final lo que ocurre muchas veces cuando estamos leyendo un libro o estamos viendo una película. Es la razón por la que volvemos a ver una película, aunque ya sepamos lo que va a ocurrir, o releemos un libro que ya sabemos cómo termina. Porque, en el fondo, queremos revivir las emociones que nos propone el autor, y eso es algo que necesitamos como humanos: consumir la narrativa. La vida humana se compone de historias atadas entre sí, que nos vamos contando los unos a los otros. Consumir historias es algo tan humano como consumir comida, o como beber. Y el thriller es un alimento para el alma que también está ahí.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa:**
**https://labur.eus/mikelsantiago**






**LIBERTAD**
Angela Merkel
RBA

RBA

# LIBERTAD

**Angela Merkel** publica *Libertad (Freiheit)*, sus esperadas memorias. Llegará a las librerías el 26 de noviembre. Durante dieciséis años, Merkel fue canciller de Alemania, la primera mujer en ocupar este cargo. Su actitud, sus decisiones y su forma de liderar contribuyeron a definir la política tanto alemana como internacional de la segunda mitad del siglo XX.

**Angela Merkel** fue una de las mujeres más poderosas del mundo, pero no nació canciller. En sus memorias, la que fuera el rostro político más respetado de Alemania y Europa rememora su infancia y juventud, con especial énfasis en su época de estudiante y en la caída del muro de Berlín en 1989, año en que decidió implicarse activamente en la vida política de su país. Pocos líderes mundiales han sido testigos de primera fila de la historia de dos estados, como es su caso.

Gracias a ello, el libro propone un detallado y estimulante viaje a través de los 35 años que pasó en la RDA y de los otros 35 años en los que vivió como protagonista la transformación de la Alemania reunificada.
Escritas de la mano de la asesora que la ha acompañado durante toda su trayectoria, **Beate Baumann**, las páginas de este monumental proyecto reviven los encuentros de **Angela Merkel** con los líderes internacionales más influyentes del mundo, así como los momentos más decisivos de su carrera política. La excanciller ofrece por primera vez su visión sobre los entresijos del poder y se propone iluminar de forma clara y precisa cómo se tomaron las decisiones que configuraron nuestro tiempo.
Al frente de la primera economía de Europa, Angela Merkel fue durante mucho tiempo la única mujer en las cumbres mundiales, en las que coincidió con **George Bush**, **Barack Obama**, **Vladimir Putin**, **Tony Blair** o **Jacques Chirac**, entre otros. **Merkel** marcó la agenda europea e internacional con un estilo discreto y pragmático. Durante los años en que gobernó se erigió como una líder empática capaz de ganarse el respeto de sus adversarios. Por su influencia y determinación durante sus sucesivos mandatos, fue considerada durante muchos años "la mujer más poderosa del mundo".

# CUANDO HARU ESTUVO AQUÍ

KIWI

**Dustin Thao**, autor que ha vendido más de un millón de ejemplares, llega con su nueva novela, *Instant bestseller* del suplemento de libros del periódico New York Times. Thao ha tejido una narración que combina el espíritu de *¿Estamos okey? Un verano para recordar*, de **Nina Lacour**, y la serie televisiva *Wandavision*, para abordar la pérdida y el proceso de aprender a dejar ir a la persona amada.
*Cuando Haru estuvo aquí*, la nueva novela de **Dustin Thao**, llega precedido de una excelente acogida en Estados Unidos y avalada por *Has llamado a Sam*, su exitoso título precedente.

Tras de la muerte de su mejor amigo, Eric Ly crea escenarios imaginarios en su mente para lidiar con su dolor. Hasta que uno de ellos se vuelve real cuando un chico, que conoció el verano pasado en Japón, regresa a su vida. Cuando menos lo espera, Haru entra en la cafetería y se sienta a su lado. El problema es que nadie más puede verlo.
En un giro mágico de los acontecimientos, Eric, de repente, tiene a alguien con quien conectar, lo que le hace sentirse menos solo en el mundo. Pero a medida que él y Haru pasan más tiempo juntos, Eric comienza a cuestionarse qué es real y qué no. Cuando empieza a perder el control de lo que lo mantiene en pie, Eric deberá finalmente enfrentarse a su realidad, aunque eso signifique perder a Haru para siempre.
El escritor **Adam Silvera**, autor de *Al final mueren los dos*, ha elogiado el nuevo libro de **Dustin Thao**. *"Cuando Haru estuvo aquí* es un retrato del duelo impresionante que te golpea las entrañas y sana el corazón. Es mágico ver cómo **Dustin Thao** hace que te enamores de que te rompan el corazón".
Esta edición de *Cuando Haru estuvo aquí* tiene los cantos pintados.




**CUANDO HARU ESTUVO AQUÍ**
Dustin Thao
KIWI




# JAVI ARAKAMA (EUSKARABIDEA): "Euskararen ekosistema elikatzen jarraitzeko asmoa daukagu"

**Asko eta askotarikoak dira Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua euskararen sustapenean ematen ari den urratsak. 2024 urte honetan egindakoen artean helduentzako euskara ikasteko dirulaguntzen handitzea, "Sarean Euskaraz", euskarazko kultura digitala zabaltzeko jardunaldi-jaialdia, eta "Musikariak ikastetxeetan", euskarazko musika sortzaileak ikasleei hurreratzeko programa, gazteentzako jarduera arrakastatsuak edota 55 bat herritara euskal kultura eramaten duen "Gora-gora Fest" jaialdiaren edizio berria azpimarra daitezke, besteak beste. Jabi Arakama da Euskarabideko zuzendari kudeatzailea.**



**Amaitzear dagoen urte honetan, Euskarabideak egindako lanaz zer balantze egiten duzu?**
Pozik nago 2024an egindako lanarekin. Euskarabideak kudeatzen dituen arlo guztietan lortzen ari gara finkatutako helburuak betetzea eta, horietako batzuetan, aurrerapauso politak ematea.
Hizkuntza Politika ez da epe motzeko politika; begirada luzea, jarraitutasuna eta egonkortasuna behar ditu, eta 2015etik hona Nafarroan oinarri sendoak jartzen ari gara.

**Zeintzuk dira erronka nagusiak heldu den urtera begira?**
Euskararen ezagutzari eta erabilerari eragiten jarraitu nahi dugu. Horretarako, sentsibilizazio-kanpaina publikoez gain, euskararen ekosistema elikatzen jarraitu nahi dugu: komunikabideak, euskaltegiak, toki entitateak, elkarteak, gazteak, aisialdia, digitalizazioa, haur eta helduen euskalduntzea, enpresak… Eragile publiko eta pribatu guztiekin egin nahi dugu lan, lankidetzan sinesten dugulako eta emaitza onak ekartzen ari delako.
Proiektu berriei dagokienez, eta lurralde-kohesioa helburu, hurrengo urteetan Nafarroa osora hedatu nahi dugu Euskara Sustatzeko Eragilearen lana, udalez gaindiko entitateen bitartez. Arrazoi ezberdinengatik, gure herrialdeko eskualde askotan ez daukate halakorik, eta oso lagungarria izan daiteke euskararen normalizazioan. Ez dakit 2025ean Nafarroa osora iritsiko garen, baina aurrerapauso handiak egonen dira. Ilusionatuta nago bide honekin.

> *"Euskaraz jolasten, abesten eta irakurtzen izango gara etxeko txikientzat eredu. Euskaraz bizi ahal izateko ezinbesteko pausoak dira"*

**Data hauetan opariek hartzen dute protagonismoa. Euskal kultura oparitzearen aldeko hiru arrazoi, mesedez?**

1 Arrazoi nagusia da euskal kulturak gozamenerako atea irekitzen digula. Euskal literaturan, musikan, antzerkian, ikus-entzunezkoetan… kalitate handiko produktuak ditugu, ongi pasatzeko, barre egiteko, hausnartzeko... aukera ederra ematen digutenak.

2 Guk gure ekosistema sustatzen ez badugu, nork eginen du? Nork zabalduko du gure mundu-ikuskera, gure hizkuntzan, guk egiten ez badugu?

3 Normalizazioaren bidean, etxeko txikientzat eredu izan behar dugu. Euskaraz jolastea, abestea, irakurtzea, ongi pasatzea… euskaraz bizi ahal izateko ezinbesteko pausoak dira. Gure esku dago hori guztia gure haurrei erraztea.

euskarabidea | Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua | AGENDA 2030

# KARMELE MITXELENA

**Karmele Mitxelenak Augustin Zubikarai saria irabazi zuen iaz, eta oraintxe argitaratu du sari hari esker idatzitako eleberria, *Zoriona, edo antzeko zerbait*, non bere buruaz beste egin duen gizon baten emaztearen dolua kontatzen den. Gai sakonak jorratzen diren arren, baikortasunez zipriztindurik dago nobela.**

**Nondik sortu zitzaizun gai hauei buruzko eleberri bat idazteko ideia?**
Sentipen batetik abiatu zen istorioa, senarrak bere buruaz beste egin ondoren alargundutako emakumearen erruduntasunetik.

**Depresioak jotako pertsona zenbateraino da gaixotasun horren biktima, zenbateraino bere ekintzen erantzule?**
Zaila da erantzun bat ematea. Gaixo dagoen pertsonaren begietatik munduaren perspektiba oso bestelakoa dela ulertu behar da, errealitatea beste bat dela. Eta nork bere errealitatea bizi duenean, norena da errealagoa?

**Posible da zoriontsu izatea hurbileko norbaitek bere buruaz beste egin duenean?**
Batzuetan badirudi bizitzan bi aukera baino ez daudela: zoriontsu izan edo ez izan. Baina, zorionez, abanikoa askoz zabalagoa da.

**Oinazearen erdian, bizinahia eta desira berraurkitzen ditu protagonistak, baina etengabeko borrokan dabilzkio urguilua, errua eta lotsa.**
Sentimenduen nahas-mahas hori bizitzaren parte da. Sentipenak ez dira bukatzen, gure inguruan biraka dabiltza, hurbilago edo urrunago, isilago edo ozenago. Eta batzuek kontrakoak diruditen arren, aldi berean ager daitezke.

**Zer ekarpen egin diezaioke literaturak gizarte-arazo hauen konponbideari?**
Gai hauen inguruan idazteak, eta ondorioz, irakurtzeak, batez ere ikusgarri egiten ditu, eta ikusgarritasun horrek aitortza bat eta leku bat eman. Gizarte-arazoei konponbidea emateko, lehenik eta behin gizarte-arazo horiek existitzen direla jakin behar dugu. Nekez konponduko dugu existitzen denik ere ez dakigun arazo bat.




**ZORIONA, EDO ANTZEKO ZERBAIT**
Karmele Mitxelena
ELKAR

**AIORA JAKA**
Itzultzailea

# GOIO RAMOS

**Augustin Zubikarai saria irabazitako bere lehendabiziko eleberrian, Goio Ramosek 1980ko hamarkadara garamatza. Urte haietako musikaz blai, protagonisten bizipenekin batera garaiko egoera soziopolitikoa ere deskribatuko digu.**




**LONDON CALLING**
Goio Ramos
ELKAR

**Zer topatuko du irakurleak nobela honetan?**
Euskal Rock Erradikalaren garaian kokatutako istorio bat. Urte haietako gertaera sozial, politiko eta kulturalak atze-oihala izanik, gazte batzuek rock talde bat osatuko dute. Halere, bidea ez da izango eurek uste bezain samurra.

**Egitura nahiko originala du eleberriak.**
Kontzertu baten gisa dago antolatuta: Intro, Setlist eta Outro. Intro eta Outroan istorioa gaur egun eta Londresen dago kokatuta. Setlistean, berriz, Euskal Herrian, 1984tik 1987ra.

**Ez dago narratzaile bakarra.**
Ez. Istoriotik kanpo dagoen narratzaileaz gain, hiru protagonista nagusiek ere funtzio hori betetzen dute hainbat unetan, kontu pertsonalagoak euren ahotik kontatzeko.

**Horrenbeste ahotsekin, ez dago nahaste-borrastea sortzeko arriskurik?**
Ez dut uste. Eleberria irakurri dutenek komentatu didate hasieran ezustean harrapatu zituela polifonia horrek, baina berehala hartu ziotela erritmoa.

**Nobelan zehar gazte protagonisten garapen pertsonala nabari da, agian adinarekin lotuta.**
Adinarekin eta inguruan suertatzen zaizkien egoerek behartuta.

**Musikak dena blaitzen du, izenburutik hasita Garik idatzitako hitzaurreraino.**
Musikazale amorratua naiz. Lan honek nire pasio biak uztartzeko bidea eskaini dit, musika eta literatura.

**Atal guztien hasieran QR kode bat dago.**
Izenburuak edo zenbakiak jarri beharrean, bertan kontatuko denarekin lotura duten kantak entzuteko kodeak jarri ditut atalen hasieran. Nobelak kontzertu baten egitura duenez, ezin musikarik falta.

**Azken kanta zure taldeak grabatutakoa da.**
Bai. Ideia polita iruditu zitzaidan fikziozko taldearen kanta bat errealitate bihurtzea. Taldekideei proposatu, eta lanean jarri ginen.

**Istorio autobiografikoa da?**
Ez, fikziozko lana da. Baina hor kontatutako gauza asko bizi edo ikusi izan nituen urte haietan.

**KEPA CRIADO**
Irakaslea

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/goioramos**


© PLANETA

*“Toda la novela es una indagación acerca de las consecuencias que tendría en nuestra vida que nos quedásemos con una apariencia de treinta años y siguiésemos vivos durante siglos”*

# EVA GARCÍA SÁENZ DE URTURI

**Eva García Sáenz de Urturi reedita su primera novela, *La vieja familia*, primera parte de *La saga de los longevos*, a la que seguirán en breve *Los hijos de Adán* y *El Camino del Padre*. La autora de *El silencio de la ciudad blanca* (2016), ganadora del Premio Planeta en 2020, nos habla de esta trilogía mezcla de thriller, novela histórica y fantástica, con la inmortalidad y los secretos familiares como hilo conductor.**

**Recupera ahora la que fue su primera novela. ¿Ha cambiado algo en la revisión?**
Reedito la primera y segunda novela de la trilogía longeva porque ambas estaban agotadas en las librerías. Los años iban pasando y las lectoras y lectores las reclamaban. Se había convertido en un fenómeno de culto. He podado algunas páginas que tenían que ver con el día a día en el museo de arqueología, porque después esas no continuaban en la segunda y tercera parte.

**¿Le sorprendió el éxito cuando salió? ¿Por qué cree que gustó tanto?**
Creo que la gente adora a los personajes, a Urlo, a Lur, a todos los longevos. Algo tiene de especial esta saga para que haya estado agotada durante tantos años y la gente la siga demandando.

**¿La concibió como una trilogía?**
No, escribí la primera novela con su planteamiento, nudo y desenlace. Después continué leyendo acerca de distintos momentos de la Historia y siempre veía a los longevos en esas épocas y las escenas crecían de nuevo en mi cabeza. Por eso escribí *Los hijos de Adán*, pues quería saber el origen de Lur, de Urko y de Gunnarr.

**¿Cómo fue el proceso de escritura?**
Tardé tres años, y le dediqué varias horas cada noche. Primero vino la documentación, que en este caso fue muy exigente, ya que abarca todos los períodos desde la Prehistoria. Después, la documentación del gen longevo. Durante tres veranos viajé a Cantabria para elegir y empaparme de los escenarios. Fue retador y muy estimulante.




LA SAGA DE LOS LONGEVOS
**LA VIEJA FAMILIA**
Eva García Sáenz de Urturi
**PLANETA**

**Los integrantes de la Vieja Familia no envejecen. Parece el sueño de todo el mundo, pero eso no les hace más felices. ¿Hay algún tipo de mensaje implícito?**
Toda la novela es una indagación acerca de las consecuencias que tendría en nuestra vida cotidiana si todos nos quedásemos con una apariencia de treinta años y siguiésemos vivos durante siglos. ¿Cómo sería que nuestros familiares tampoco envejecieran? ¿Nos adaptaríamos a los nuevos códigos éticos y culturales de cada generación? Creo que son preguntas que todos podemos hacernos en algún momento y esa precisamente ha sido la clave del éxito de los longevos.

**¿Cómo ha cambiado su vida desde 2012, en que apareció esta novela?**
Ha cambiado en todo. Ahora me levanto y escribo el capítulo del día. Si estoy de promoción, viajo o imparto una conferencia, conozco a gente a la que siempre he admirado. Vivo rodeada de libros y de personas que trabajan con libros y aman los libros. Con cada novela fui ganando más y más lectores, por el camino gané el Premio Planeta… Soy consciente de que, desde el día que publiqué ‘La vieja familia’, estoy viviendo una vida extraordinaria.

**KAROLINA ALMAGIA**
Periodista



# NESKA BATEN MEMORIA

IGELA

**Annie Ernaux** idazle ospetsuaren *Neska baten memoria* eleberriak 1950eko hamarkadaren amaierako Frantziara garamatza, eta modu gordinean eta zintzoan azaltzen du neska gazte baten lehen sexu esperientzia eta heldutasunerako trantsizio mingarria. Ernauxek, beti bezala, oroimenaren geruzak arakatzen ditu, oraingoan hemezortzi urteko neska bat ardatz hartuta. Uda hartan, udalekuetako begirale lanetan ari zela, esperientzia sexual latz eta traumatiko bat bizi izan zuen, eta horrek betiko markatu zuen bere identitatea eta bere buruarekiko duen harremana. 1958ko uda hura berriro bisitatuz, Ernauxek garai patriarkal baten eta gizarte-arauen zapalkuntzak emakumeen bizitzetan nola eragiten duten aztertzen du ikuspegi zorrotz eta sakon batekin.

Liburuak barne-bidaia gisa garatzen du kontakizuna; lotsak eta isiltasunak funtsezko papera jokatzen dute identitate femeninoaren eraikuntzan, eta protagonista bere gaztetako irudia eta bizi izan zuen zauri emozional sakona onartzen ahalegintzen da. Ernauxek ez ditu gertakariak besterik gabe kontatzen, baizik eta emakume askorentzat ezagunak diren bizipen mingarrietan arakatzen du: xalotasuna galtzea, gizartearen itxaropenak betetzeko presioa eta desira maskulinoaren aurrean norbere burua etengabe epaitu beharra.

Liburu hau ez da Ernauxen jarraitzaileentzat bakarrik, baizik eta generoak eta erabateko baimenik gabe bizitza osorako markatu duten esperientziek definitzeko pisua sentitu duen edozein irakurlerentzat ere bai; bereziki emakumea baldin bada.

*Neska Baten memoria* irakurketa katartikoa da, emakumeak gonbidatzen dituena beren lotsei eta isilaldiei aurre egiten. Ernauxek tresna indartsua eskaintzen digu geure burua ulertzeko, epaiaren aurka, errukitik eta zintzotasunetik abiatuta. Neurri berean da emozio femeninoen konplexutasunean murgiltzeko gonbita, eta minaren gainetik, iraganaren kateak askatzeko aukera eskaintzen du. Obra hau ezinbestekoa da emakume izatearen zailtasunak eta mirariak ulertzeko ahots egiazko baten bila dabiltzan guztientzat.




**NESKA BATEN MEMORIA**
Annie Ernaux
IGELA

# ORHIPEAN, BERRITUA

PAMIELA




**ORHIPEAN**
**GURE HERRIA EZAGUTZEN**
Xamar
PAMIELA

Euskal kulturara sarbide erraz eta eder bat duzu hemen, irakurle. Orhi mendiaren bi magaletan hazten den Herriaren ohituren, sinesmenen eta bizipozaren azalpen xehea. Atalka lantzen ditu **Juan Carlos Etxegoien *Xamar***rek, Garraldako semeak, Euskal Herrian biltzen diren tradizio, istorio eta doinuak. Euskal kulturaren izaera eta jarduna, hitz larriz jartzeko, luzamenduetan galdu gabe baina tentuz azaldua.

Edizio erabat berritua dakargun honetan, euskal kulturaren dibulgazioko klasiko garaikide bat bilakatua da jada esku artean duzun liburua, milaka ale joan direlarik munduan zehar euskaraz, katalanez, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

Baina zer da funtsean *Xamar*rek hemen dakarkigun hau? **Patziku Perurenak** ongi dion bezala, "euskal animaren entziklopedia ttiki bat bezala hartzeko liburua da… Euskaldunok erregalo modura hartzeko liburua da hau…". Euskararen Herria ulertzeko lana da, denborari eta kanpo eta barne gatazkei aurrea hartuz euskara egundaino gure ibar eta auzoetan mantendu duen Herri hau ulertzeko ezinbesteko lana. Egileak hautatu margolan, argazki eta mapez lagundurik, begirada erakarri eta jakinmina pizten dutenak, *Xamar*ren hitzek hasi eta buka ekarriko zaituzte gure ondarearen historian zehar.

Gordetzeko, oparitzeko eta behin eta berriz itzultzeko liburua duzu beraz eskutan, irakurle. **Antton Luku** adiskideak edizio berri honen aitzinsolasean dioen bezala: "Liburutegia osatu behar dugu bidaia handi batendako bezala […]: gaineko apalategian *Orhipean*en lehen edizioa ezarri beharko dugula. Eskerrak behin eta berriz *Xamar*".

***Xamar***ren beste lan batzuk: *1898, Garralda* (Pablo Mandazen Fundazioa, 1998), *Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiaz* (Pamiela, 2001), *Euskara Jendea: Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (Pamiela, 2006), *Etxea. Ondarea, Historia, Mintzoa* (Pamiela-Erroa, 2016) eta *Etxera bidean* (Pamiela, 2018). Azken horrekin Euskadi Literatura saria irabazi zuen saiakera atalean.



# LOS MUERTOS NO PAGAN

**En ocasiones, nos preguntamos de dónde sacan la inspiración los autores. A veces, un simple encuentro informal deviene en una noche de revelaciones inesperadas a la par que inquietantes. Hace algunos años, en casa de unos amigos en una cena sin más pretensión que pasar un rato agradable, Fermín conoció a la persona en cuyo relato se inspiró para dar vida al protagonista de este suceso. De esa noche de buen vino y buena conversación, salió esta escalofriante historia en donde un tipo normal con una vida ordinaria se enfrenta a uno de los episodios más traumáticos de su vida, que desde ese momento nunca volvió a ser la misma, porque ¿cómo es posible regresar a esa vida cotidiana tras una experiencia que no solo acaba por marcar tu vida sino también la de los que te rodean para siempre? Este es el punto de partida de *Los muertos no pagan*, la nueva novela del escritor y periodista navarro Fermín Goñi que edita Fondo de Cultura Económica de España.**



© FONDO DE CULTURA ECONÓMICA

*Los muertos no pagan* cuenta la historia de Bruno, uningeniero barcelonés afincado en Buenos Aires desde su infancia que trabaja en el hotel Hilton de Puerto Madero, un barrio de la zona oeste de la ciudad porteña. Un viernes de resaca, resultado de asistir el día anterior a la boda de uno de sus mejores amigos, cuando regresa a casa del trabajo, decide salir a sacar dinero del cajero más cercano a su casa. Le acompaña su perra Cloe. Cuando enfilan el camino de vuelta, dos desconocidos los arrastran a punta de pistola en un coche conducido por un tercer individuo. A partir de ahí, con el cañón de un revólver en su sien y con su perra aterrorizada a sus pies, arrancará la noche más difícil de su vida. Tan pronto descubren su Visa Oro, se concentran en esquilmarle su tarjeta y, de paso, su autoestima. Recorrerán los barrios más peligrosos de la ciudad haciendo todo tipo de compras. Incluso aprovecharán la ocasión para un buen rato en un burdel. Con cada cargo a su tarjeta, Bruno intuye más cerca su final.

Mientras tanto, su mujer, Denise, y el resto de su familia, viven horas de angustia al no tener noticias de Bruno. La tesis de un posible secuestro va tomando fuerza ante el silencio del protagonista. Conocedores de la inoperancia manifiesta de la policía argentina, tanto Denise como sus hermanos dudan sobre los pasos a seguir: ¿deben notificar a las autoridades la desaparición de Bruno o, por el contrario, permanecer callados y apurar sus opciones para evitar un desenlace fatal?

La inestabilidad y la violencia sufridas en Argentina a principios de este siglo es el telón de fondo de esta historia en la que Goñi, con su prosa certera y su destreza habitual, construye una historia en la que no falta detalle. La idea para una novela puede salirle al paso de múltiples formas al escritor, pero es su genio el que ha de componer la estructura, definir el perfil de cada uno de los personajes y lograr que todos estos elementos se distribuyan de manera que el ritmo de la historia nos atrape. Y en *Los muertos no pagan* Fermín lo consigue sin duda alguna.

Licenciado en Periodismo y Ciencias Políticas, **Fermín Goñi** (Pamplona), tiene una extensa carrera como escritor, donde ha tocado diversos géneros que incluyen la narrativa, los libros de viajes o el ensayo periodístico. Entre otras muchas, es autor de las novelas *Un crimen en línea recta* (FCE, 2023), *Los escandalosos amores de mis amigos* o *El hombre de la Leica*, además de la trilogía sobre el proceso de independencia suramericana: *Los sueños de un libertador*; *Todo llevará su nombre* (FCE, 2023) y *Un día de guerra en Ayacucho* (FCE, 2021 y 2022).




**LOS MUERTOS NO PAGAN**
Fermín Goñi
FCE

# ITZIAR OTEGI

**Kutxa Fundazioa Donostia Literatura saria irabazi du ipuin-bilduma arloan Itziar Otegik (Oiartzun, 1972) *Ezer ez dago utzi nuen lekuan* lanarekin, hizkeraz, estiloz eta begiradaz nabarmentzen den kontakizun-sorta.**

**Helduen literaturako lehen liburua duzu, baina oso esku trebea nabari da. Itzulpengintzaren esperientzia da? Argitaratu ez arren aspalditik idatzi izana?**
Itzultzaile aritzeak lagunduko zidan luma zorrozten, seguru. Norbaitek esan zuen itzulpena irakurketa baten idazketa dela, eta badira urte batzuk idazketa horretan ari naizela. Irakurtzearen partea ere oso garrantzitsua da, esango nuke hor dagoela oinarria. Bestalde, badira urte batzuk neure testuak idazten hasi nintzela, nahiz orain arte gutxi argitaratu dudan.

**Eta zergatik ipuin-bilduma zure estreinakoan?**
Ipuinarena da gehien interesatzen zaidan moldea. Zerbait idazteko bulkada sortzen zaidanean, ia beti narraziora jotzen dut, eta efektu jakin batzuk lortzen saiatzera. Ipuinak bide ezin hobea ematen du horretarako.

**Ipuinetan, bai gai, bai erregistro eta bai teknika ugaritasun bat nabari da. Hala erabakita, ala esperimentatzen ibiltzearen ondorioz?**
Ez dut berariaz bilatu esperimentazioa; aniztasuna bai, irakurlearen interesa mantendu nahian. Beste ezeren gainetik, bilatu dut kontatu nahi dudan istorioa ahalik eta ondoen kontatzea, modurik beharrezkoenean eta eraginkorrenean. Horren mende egon dira hautu guztiak.

**Hala ere, badira ipuin gehienak batzen dituzten hainbat motibo, gaien azpitik denak josten dituzten kezkak, sentiberatasun minbera bat...**
Bai, horrek bihurtzen du bilduma kontakizunen segida hori. Gai jakin batzuk lantzen dira ipuin guztien artean; identitatea, adibidez, eta geure buruarekin eta besteekin mantentzen ditugun harremanen konplexutasuna.




**EZER EZ DAGO UTZI NUEN LEKUAN**
Itziar Otegi
ELKAR

**Sarrera bikain honen ondotik, hurrengo pausoak pentsaturik dituzu?**
Idazten jarraitu nahi nuke, neure erritmoan. Baditut proiektu batzuk esku artean. Aurreratuena, haurrentzako album bat **Iraia Okina** ilustratzailearekin. Eta badatozkit beste kontakizun batzuk ere, ate joka.

# JON K. SANCHEZ

**Antzerki alorreko Kutxa Fundazioa Donostia Literatura saria Jon K. Sanchezek (Donostia, 1981) jaso du aurten *Ez-izan* lanarekin.**

**Kultura digitala jarri duzu istorioaren erdigunean.**
Antzezlaneko pertsonaientzat, Internetek eragindako kultura digitala ezinbestekoa da. Are gehiago, euren identitate digitalak dira euren bizitzaren oinarri. Interneteko bizipenek osatzen dituzte euren kontakizun biografikoak.

**Zergatik aukeratu duzu antzerkia idaztea?**
Antzerkigintzak duen berezko indarragatik. Idazle bezala, beti bilatzen dut inpaktua, nolabaiteko probokazio ironikoa. Gainera, murgiltze esperientzia bat da antzerkigintza, eta interaktiboa, Errealitate Birtualeko betaurreko eta aparailu elektronikoen beharrik gabe.

**Transhumanismoaz ari zara?**
**Paul B Preciado**k bere *Manifiesto Contrasexual*en dioen bezala, gizakiok sortzen ditugun teknologiak geure zentzumenen hedapenak dira. Teknologia horien bitartez, etengabe gainditzen ditugu geure muga biologikoak. Kultura digitala eta Cyber-errealitateak horien jarraipen besterik ez dira. Gizakiok hasieratik izan gara Cyborg.

**Adimen artifizialari buruz zer esan daiteke?**
Gure artean gelditukо da; gure mundua gidatzen duen kapitalismo neoliberalari oso ongi datorkio. Alde batetik, segurtasuna areagotzeko tresna delako, eta bestetik, ekoizpen-kostuak murrizteko lanabesa. Halere, ez dut uste giza sormena ordezkatzeko gai izango denik. Nire ustez, sormena gizakiok barruan daramagun kaosetik dator. Eta Adimen Artifizialak ordena algoritmikoak besterik ez dira.

**Testuko pertsonaiak benetan galduta daudela iruditu zait.**
Egia ontologikorik gabeko mundua da gurea. Post-postmodernitateak egia guztiak erlatibizatu eta deuseztatu ditu, baina gizakiak horien beharra duela ikusten ari gara. Horregatik aurkitzen ditugu sarean hainbeste guru, coach eta influencer. Gizakiak zerbaitetan sinetsi behar du. Eta Internet bera fede horretan oinarritzen da. Denok uste dugu etorkizuna eta Internet bereizezinak direla. Ez dugu Internetik gabeko mundurik aurreikusten. Baina hori ez al da sinismena?

**Gizakitasunaren funtsaz.**
Gizakiaren funtsa heriotza dela esango nuke. Kultura oro, azken finean, heriotzaren irudikapena dela esango nuke. Gure espezieak nahiko denbora irauten badu, ziur nago heriotza biologikoa gaindituko duela, zientzia, teknologia eta medikuntzari esker hain zuzen ere. Eta orduan gizaki izateari utziko diogu. Beste zerbait izango gara, baina ez gizaki.




**EZ IZAN**
Jon K. Sanchez
ELKAR

**Zure lana taularatua ikusi nahiko zenuke?**
Sentsazio benetan hunkigarria litzateke, batez ere, ikusleen akzioak sentitzea.

ELKAR 78-1.indd 16 4/11/24 9:11



## Proposamena

**JOSETXO ORUETA**
Escritor

# CUANDO LA HISTORIA NOS DEJA TEMBLANDO

¿Recomendarte un libro? Voy a hacer trampa y te recomiendo siete. Se trata de una saga, claro: *Los reyes malditos* (**Maurice Druon**). Está bien, nos quedaremos con el primero, *El rey de hierro*.
Sí, parece el título de alguna serie de HBO, pero esto ocurrió de verdad, aquí cerca, cuando la codicia, los rencores y toneladas de ambición empujaron a buena parte de Europa hacia el precipicio de la guerra de los Cien Años.
Nuestro mundo presentaría otro aspecto, las fronteras dibujarían otras líneas, conoceríamos idiomas diferentes a los de hoy, si en aquellos principios del siglo XIV, en Francia, los Valois no hubieran sustituido a los Capetos directos. La maldición proferida por el último maestre del Temple desde la hoguera en la que fue ejecutado no explica la cadena de acontecimientos desastrosos que sembraron la tragedia. La comprenderemos, sin embargo, a través de un elenco de personajes complejos a los que la narración devuelve una vida plena y una muerte dramática: **Felipe IV**, un rey inflexible que quiso acabar con el feudalismo; **Robert d'Artois**, el revoltoso, que para recuperar sus tierras incendió su reino; su tía **Mahaut**, la retorcida condesa matarreyes; **Margarita de Borgoña**, que solo deseaba vivir sus pasiones y acabó siendo la 'reina estrangulada'; **Felipe de Poitiers**, que fabricó a un papa y se inventó la ley sálica para conquistar un trono…
Mas no nos vayamos a asustar; el rigor histórico no resta fluidez a un relato que, bajo la pluma de Druon, nos transporta como una novela de aventuras.
¿Y qué sería de nosotros, simples autores, sin la huella profunda que nos han dejado obras como esta? Recordemos que Maurice Druon, autor del himno de la resistencia francesa durante la ocupación nazi, sigue siendo el maestro ineludible de quienes nos atrevemos a escribir novela histórica.




**LOS REYES MALDITOS**
**EL REY DE HIERRO**
Maurice Druon
B DE BOLSILLO




©ELKAR

# MIKEL PAGADI

**Euskal Telebistako aurpegi ezagunenetarikoa dugu Mikel Pagadi gidoilari eta aurkezlea. *Bisita* eleberriarekin literaturara salto egitea erabaki du, umorea eta zientzia-fikzioa uztartzen dituen istorio sailkaezin batekin.**




**BISITA**
Mikel Pagadi
ELKAR

**Bisita Euskal Herrian lur hartzen duen OHE (Objektu Hegalari Ezezagun) batekin hasten da, eta gertaera horrek krisialdia sortzen du erakundeetan. Nola sortu zitzaizun umorea eta kritika soziala nahastearen ideia?**
Umoreak kasu honetan intentzio argia du. Pandemia garaian ikusi genuen errealitateak fikzioa gaindi zezakeela, eta ardatz horri helduta egin dut lan: argumentua, pertsonaiak eta gertakariak sortu ditut, baina betiere errealitatean oinarritutako ibilbide-orriari jarraituz. Zer gertatuko litzateke Euskal Herrian beste planeta bateko ontzi bat agertuko balitz? Istorio honen bidez, horrelako gertaera batek jendearengan sortuko lituzkeen erreakzioak islatu nahi izan ditut.

**Eleberriak egitura berezia du. Pertsonaia asko agertzen dira, oso profil, jatorri eta testuinguru desberdinetakoak. Zein izan da formatu hori erabiltzearen helburua?**
Ikuspuntu orokor bat emateko beharra nuen, eta istorioa perspektiba anitzetatik kontatzekoa. Izan ere, balizko larrialdi-egoera batean gizartearen esparru guztiak kontuan hartu beharko lirateke. Kontakizunak NASAko bulegoetatik hasi eta Euskal Herriko herri txiki bateraino-ko ibilbidea egiten du, geure politikarien bulegoetatik pasata. Testu tipologia ezberdinez baliatu naiz argumentuari sinesgarritasuna eta bariedadea emateko: narrazioa, elkarrizketak, txostenak, e-mailak…

**Nola lortu duzu umorea eta gai “serioak” orekatzea?**
Komedia eta gai serioak uztartzen ditugunean, ezinbestekoa da tonu egokia lortzea, baina ez da erraza. Tonu hori harrapatzen badugu, idazlanean horrek gidatuko gaitu; zer jarri edo zer kendu erakutsiko digu, garai batean *Word*en agertzen zen klip laguntzaile astun hark egiten zuen moduan.

**Nola eragin du gidoilari eta telebistako aurkezle gisa izan duzun esperientziak zure idazketan?**
Publikoaren gehiengoak ez daki 21 urte daramatzadala telebistarako eta beste hedabide batzuetarako idazten; eta normala da ez jakitea. Azken finean, pantaila batean agertzen bazara, jendeak ez du zertan jakin gidoiak ere idazten dituzunik. Lan biek badute elkarren antza, baina erabat desberdinak dira. Telebistako lana azkarregia suertatzen da askotan eta oso nekagarria izan liteke, baina etxera heltzean errazagoa da deskonektatzea. Eleberri bat idazteak ez du gidoigintzaren tentsio hori, baina hortxe daukazu istorioa buruan etengabe, eta obsesio bihur daiteke.

**Zer espero duzu irakurleak sentitzea edo pentsatzea zure eleberria irakurtzean?**
Gauza bakarra espero dut: *Bisita* esku artean duenak barre egin dezala; harritu dadila, eskuak aurpegira eraman ditzala eta gozatu dezala. Hori lortzen ez badut, liburuak duen tamaina idealak etxeko mahai bat nibelatzeko ere balioko dio irakurleari, behintzat. Hori ezin du edozein idazlek esan! Ea nork nibelatzen duen mahai bat 530 orrialdeko *totxo* batekin…

**ESTI VIVANCO**
Idazlea



# IRATI




**_Irati_ film txalotuak ahalegin berezia egin du mamiari bezainbeste irudiari garrantzia aitortzeko. Lortu ere egin du, emaitza zinez ikusgarria baita. Eta erronka ez zen makala, VIII. mendeko euskaldunak eta gure mitologiako pertsonaiak berpiztu nahi zituen eta. Zuzendariak, Paul Urkijok, liburu batean bildu du pelikularen lan artistikoa, filmeko irudigintza oparoaren nondik norakoak alegia.**




**Paul Urkijo Alijo** *Irati* filmaren zuzendaria eta gidoilaria da. Eta *Irati. Filmaren Artea* liburuaren egilea ere bada. Izan ere, liburua pelikularen zabalpena da, bere irudigintzan murgiltzeko atea. Eta badago zeri begira egon.

Hasteko eta bat, *Irati* gure kulturaren baitatik sortutako filma da, gure unibertso eta gure imajinario kolektiboaren muinetatik erditutako istorio audiobisuala. Batetik, euskaratik sortua da. Bestetik, hor daude mitoaren mailara igo ditugun gure historiaren pasarteak, Orreagako gudutik bertatik hasita. Hor ageri dira, halaber, euskal mitologiako izakietako batzuk, antzinako sineskerak... Protagonistak, Eneko eta Irati, izaki fantastikoz betetako mundu zahar batean murgilduko dira, Mari, Basajaun edo Lamiak bizi diren lurralde batean. Historiak eta elezaharrak, gainera, eszenario ikoniko batean egin dute bat, pelikulari izena ematen dion Iratiko oihan sarrian.

Hori nahikoa ez balitz, nabaria da **Paul Urkijo**ren eta bere lantaldearen ahalegina filmaren irudiak zaintzeko, mimatzeko, tentu handiz lantzeko. Oso pelikula bisuala da, fotogramaz fotograma ikuslea sorgindu egiten duen irudi-jario ikusgarria.

Horrelako lan batek, jakina, merezi zuen, filmaz harago, bere sormen-prozesuak, ekarpenak, ñabardurak eta emaitzak luze eta zabal jasoko zituen eremu bat. Horretara dator, hain zuzen, liburu eder hau.

Izan ere, pelikularen sormen-prozesuan, lantalde artistiko gartsu batek egin zuen behar zuzendariaren gidaritzapean eta, elkarrekin, belaunaldiz belaunaldi transmititutako kondairak pantaila handira eramateko erronkari heldu zioten: lan ederra, maitasunez, errespetuz eta imajinazioz egindakoa. Liburu honetan, sormen-prozesuko ehunka irudi eta argazki azalduko zaizkigu: arte kontzeptualak, arte-diseinuak, jantzi-diseinuak, VFX, makillajea, errodajeko irudiak, pelikularen fotogramak, kartelak, euskararen tratamendua…

Eta horiekin batera, zuzendariak idatzitako komentarioak aurkituko ditugu. Aukera bikaina da filmaren gaineko xehetasun ugari ikasteko, gako batzuk ulertzeko eta sormen-prozesu itzel honen nondik norakoak barrutik ezagutzeko.

Liburua, gainera, pelikulak darabilen kontu eta ardura beraren emaitza da. Oso zainduta dago, diseinua eta maketazioa irudien zerbitzura jarrita, irakurlea unibertso liluragarri horretan ia konturatu gabe murgil dadin.

*Irati* filma sariak irabazita dago, publikoak bikain erantzun du zine-aretoetan (euskarazko inoizko film ikusiena da zinemetan) eta kritikak, oro har, lanaren kalitatea aitortu du. Telebistarako jauzia eman berri du eta hor ere, seguru, harrera beroa jasoko du. Eta, liburu honek erakusten duen bezala, lorratza utziko du euskaldunon imajinario kolektiboan.



# Joxemari Sorsek elkar Fundazioko lehendakari kargua utzi du

Joxemari Sors Bagüés (Errenteria, 1951) **elkar** Taldearen sortzaileetako bat eta azken urteetan **elkar** Fundazioko lehendakari izan da. Kargua utzi berritan, 50 urte luzeko ibilbidea errepasatu dugu berarekin.

**Berrogeita hamar urte luze egin duzu elkar Taldean. Gogoan duzu noiz eta non hasi zinen?**
70eko hamarkadaren hasieran Iparraldera joan behar izan nuen, giro politikoaren ondorioz, eta han Joseba Jaka ezagutu nuen. Orduan hasi nintzen, hamarkadaren erdialdean edo, **elkar**ren lanean. Lau bat urte Iparraldean lan egin nuen eta gero, Hegoaldera itzuli nintzenean, 1979an, proiektu zabal honetan segitu nuen.

**Zein zen elkarren egoera eta ze ardura hartu zenituen orduan?**
Berez, **elkar** Taldearen sorkuntza bikoitza da. Batetik, 1976an, Joseba Jaka Hegoaldera itzuli zenean, bere anaiekin batera martxan jarri zituzten Bilintx liburu-denda eta Zabaltzen banaketa-enpresa. Talde sortzaile hori zazpi kide izan arte zabaldu zen. Bestetik, 1972an, Iparraldeko hogei gaztek Elkar argitaletxea sortu zuten eta 1974an Hegoaldeko beste hogei batu ginen ikuspegi nazionala emateko asmoz. Beraz, hasieratik euskal liburu eta musikaren balore-kate guztia kudeatzen genuen, argitaletxea, banaketa eta liburu-dendak. Eta hor nire lana izan zen argitaletxearen kudeaketa eta talde osoaren arlo ekonomiko-finantzarioaren ardura. Baina ardurak ardura, aurrera egiteko elkarlana behar da eta hori beti gauzatu dugu lankide izan ditugun guztiekin. Ez da, beraz, harritzekoa elkar izena hartu izana.

**Liburu-dendak Euskal Herri osora zabaldu zenituzten. Hori ere prozesu zaila izango zen, ezta?**
Gu abiatu ginen sasoian euskara baztertuta ez, jazarrita zegoen. Beraz, dena zegoen egiteko eta jende askok euskal kulturarekin kontaktuan sartzeko izugarrizko gogoa zeukan. Dena egiteko zegoenez, guk martxan jarri genuen eredua ez zen batere ohikoa. Alegia, guk ikusi genuen materiala behar zela, eta horretarako argitaletxearen beharra zegoen, liburugintza eta musika lantzeko, Elkar argitaletxea. Euskal kulturak, gainera, ikusgarritasuna behar zuen, eta horretarako liburu-denda jarri genuen martxan, Bilintx. Baina, aldi berean, euskal kultura Euskal Herriko ahalik eta denda gehienetan egotea nahi genuen. Eta horretarako banaketa-enpresa sortu genuen, Zabaltzen. Gero banaketa garatzen joan ginen eta herrialde guztietara zabaldu genuen. Orain zentralizazioak agintzen duen bezala, orduan deszentralizazioa zen ohikoa. Eta, liburu-denden arloan, ikusten genuen hiriburu guztietan egon behar genuela, eta zenbait herritan ere bai. Baina beti irizpide bat erabili dugu: herri batean liburu-denda batek funtzionatzen bazuen eta euskarazko kultur -produktuei presentzia garrantzitsua ematen bazien, guk hor ez genuen konpetentzia sortzen eta kolaborazioa bilatzen genuen bertako liburu-dendekin.



## Joanmari Larrarte, lehendakari berria

Joanmari Larrarte Telletxea izendatu dute elkar Fundazioko Patronatuko lehendakari. 2014tik lehendakari izan den Joxemari Sors Bagüésen lekua hartuko du Larrartek. Sorsek patronatuko kide izaten jarraituko du lehendakari izateari utzita. Joanmari Larrarte Telletxea (Hernani, 1967) Euskal Filologian lizentziatua da eta bere ibilbide profesionala euskara eta euskal kulturaren eremuan egin du.



AEK-n aritu zen 1987tik 1999ra, irakasle izateaz gain hainbat ardura zain zituen bertan. Ondoren, Egunkarian hasi zen lanean, eta han ari zela Martin Ugalde Kultur Parkearen sorreran hartu zuen parte. 2003an, Egunkaria itxi ondoren, Berrian hasi zen eta bertako kontseilari ordezkaria izan zen hamar urtez 2013ra arte. Berrian jarraitu zuen lanean marketin sailean 2015era arte eta ondoren Elkar Taldera pasa zen. Azken urteotan Elkarren egin du lan, Komunikazio eta Kultur Arloko zuzendaria izan da eta argitaletxean ere aritu da edizio-koordinazio lanetan. 2020tik Jakin Fundazioko lehendakaria da.

**Euskal Herritik kanpora ateratzea ere erabaki zenuten. Zergatik?**
Gu euskarazko liburuekin eta euskal gaiekin hasi ginen. Gero, bitarteko gehiago bilatzeko, hurrengo pausoa beste kultura batzuetako liburuak ere banatzea izan zen: frantsesezkoak, ingelesezkoak, espainolezkoak. Ondoren dibertsifikatu ginen: papergintza-produktuak, munduko musikak… Eta ez genuen aukera galdu nahi izan Estatu espainolean ere banatzeko. Horretarako Estatuan zenbait enpresa sortu genuen, baina argi edukita enpresa horiek beti izan direla instrumentalak, helburu argi batekin: euskal kulturari eta euskarari behar duen azpiegitura ematea. Enpresak sortzea ez da garrantzitsua izan, garrantzitsua izan da euskal kulturaren beharrizanei erantzuna ematea.

**Beste erabaki giltzarri bat fundazioa eratzea izan zen…**
Fundazioa sortzeko ideia eduki genuen banaketa eta liburu-denda enpresak antolatu genituen haserako zazpi kideen artean. Guk pentsatzen genuen militantziatik gentozela eta militantzia horri esker, jendearen babes zabalari esker eta gurekin inplikatu ziren lankide guztiei esker altxatu zela elkar. Horregatik, ez genuen ikusten familia-negozio bezala, pentsatzen genuen euskal kulturaren eta euskararen zerbitzura ipini behar zela. Argitaletxeko jatorrizko 40 sortzaileei ere egin zitzaien gonbita fundazioan sartzeko eta denak sartu ziren, zeren beraien nahia argitaletxea sortzerakoan berdina zen, euskararen eta euskal kulturaren zerbitzura jartzea. Fundazioak bermatzen du xede hori beteko dela, elkarlanean, eta industria kulturalak iraungo duela. Elkarlana da garrantzitsuena. Militantismoa eta profesionaltasuna uztartu nahi genituen. Iruditzen zait euskal kulturak aurrera egingo badu behar-beharrezkoa dela bi horiek batera jotzea. Ez dut irudikatzen euskal kulturak aurrera egingo duenik profesionaltasunetik bakarrik, ezta boluntarismo hutsetik ere.

**Urte asko joan dira. Orain presidente kargua utzi duzu. Pozik egindako bidearekin?**
Bai. Pozik egotekoa da. Eta pozik ez delako pertsona bakar batek lortutakoa, talde-lanaren emaitza baizik. Sasoi batzuk zailak izan dira, oso politizatuak, eta gu beti gure autonomiatik aritu gara, eta horrek prezio bat dauka. Gainera, une latzak izan dira: Eginen itxiera eta Egunkariarena, zuzenean haien zurrunbiloan sartzen saiatu ziren, haien atxiloketak… Talde parapolizialek hiru bonba jarri zizkiguten: 1976an Baionan ipini ziguten eta 1985ean eta 1986an Donostian. Gure lana ez zen batzuen atseginekoa, bistakoa da. Egia da trabarik gabe gehiago egingo genuela baina kostatzen dena gusturago dastatzen omen da eta horrekin geratuko naiz. Eta, batez ere, lantalde handi baten ekarpenekin, etxe barruan egindako lanarekin. Segidarako ere jende prestatua dago eta **elkar**rek bere ibilbidea egingo du.

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**
Askotan esaten da "pasatzen ari garen garai txarra". Baina, euskal kulturarako, noiz izan dira garai onak? Gaur egun, nire ustez, sortzaile oso onak ditugu, gazteak, momenturik onenean gaude. Ez dena handitu da irakurlego posiblea. Zenbatean ibiliko gara, 90.000-100.000 pertsona? Euskara jende gehiagok daki, baina euskal kulturaren kontsumitzaile kopurua igotzea falta da. Aldamenean ditugun kultura hegemonikoetan ere irakurlego kopurua galtzen ari dira. Irakurtzeko moduak eta sistemak aldatu dira, kontsumo kulturala bera asko aldatu da. Baina hemen gakoa da euskarari zentralitatea eta ikusgarritasuna ematea. Gizarteari eman beharko geniokeen mezua izan beharko litzateke: "euskaraz bizi liteke arlo guztietan". Eta lotu behar dugu ekonomiarekin, enpresarekin… Lortzen ez dugun bitartean, euskarak segituko du dagoen mailan. Ingelesak bere botere ekonomikoari zor dio nagusitasuna. Euskarak zentralitate hori behar du, eta gure bizitzan beharrezko bihurtu.
Bukatzeko, **elkar** Taldeari dagokionez, ardura hartu duen jendeari ibilbide oparoa opa diet, eta eskatzen diet kontutan hartzeko beti lankidetza eta elkarlana. Bakarka ezin dena, beste batzuekin posible izaten da. Bakarrik ezina, elkarrekin etekina.

## elkar Comedias liburu-dendak 40 urte bete ditu

1984an Xalbador liburu-denda ireki zen Iruñeko Comedias kalean, gaur egin **elkar** izena duena.
Ordurako, Baionan Zabal eta Donostian Bilintx liburu-dendak martxan ziren, eta haien ereduari jarraituz sortu zen Xalbador ere.
Ikusita Iruñean euskarazko liburuak zein euskal gaiak erakusleihora eramaten zituen liburu-dendarik ez zegoela, **elkar** Taldeko sortzaileek erabaki zuten Nafarroako hiriburuan ere behar zela euskal ekoizpenari leku duina emango zion liburu-denda.
Euskal liburuan espezializatua izanagatik, hasieratik gaztelaniazko liburuak ere saldu ziren bertan,. euskarazkoak bakarrik ez baitzuen liburu-dendari eusteko aukerarik ematen. 80 eta 90eko hamarkadan euskarazko eskaintza ugarituz joian zen, argitalpenak ere gero eta gehiago zirelako.
Salmenta puntu izateaz gain, kultur gunea izatea izan zen helburua hasieratik, eta gaur egun ere ugariak dira urtean zehar antolatzen diren liburu aurkezpenak eta ekitaldiak.
2005etik aurrera, taldeko gaineko liburu-dendekin batera, izena aldatu zuen, Xalbador utzi eta **elkar** izena hartuta.




Imaginen por un instante que pudieran entrar en la mente de un escalador, compartir sus pensamientos y sensaciones, sus vivencias. Busquen líneas de ascensión en paredes imposibles, verticales hasta el infinito e incluso desplomadas, a altitudes irracionales en las que la única norma escrita es la supervivencia, una batalla peligrosa de amor-odio con la montaña. Ya puestos, cuélguense de grietas y resaltes insignificantes mientras las yemas de sus dedos, laceradas y casi sin piel, rastrean cada milímetro pétreo.

En ese juego de imaginación, sientan el calor del sol en la espalda, gustoso y amigable, y disfruten de esos segundos antes de que las nubes traicioneras lo oculten y obliguen al termómetro a perder grados. Maldecirán la llegada de los primeros copos de nieve. Los músculos protestarán, entumecidos, dejarán de sentir los pies, las manos perderán agilidad y la mandíbula se apretará con fuerza. A seis mil metros de altitud el frío es implacable y no perdona. Allí arriba, la naturaleza impone las condiciones, en ocasiones duras, mortales, trágicas.

La pasión combinada con la experiencia, el esfuerzo continuo y el trabajo en equipo de la cordada serán el motor hasta la cumbre, y entonces el sufrimiento dejará paso al gozo. Será un momento de comunión con la montaña, una bocanada de oxígeno que abrirá sus pulmones, un abrazo con los compañeros aderezado con gritos de alegría. Sufrimiento y gozo se unen tras horas de "pelea".

Pues de esa manera me he sentido al editar el libro de los hermanos Pou, publicado en castellano con el título *El desafío de los Cuatro Elementos* y en euskara como *Lau Elementuen erronka*. La adrenalina se ha desbordado en cada capítulo, en esos fantásticos viajes por medio mundo en busca de los elementos, Aire, Agua, Fuego y Tierra. Su relato me he llevado con ellos a Patagonia, a los Andes peruanos, a Santo Tomé, a Pakistán y al Himalaya… sin olvidarnos de los siempre queridos Pirineos y Picos de Europa, donde han visitado el Picu Urriellu, y juntos hemos abierto rutas con nombres como *Aúpa 40*,

**EL DESAFÍO DE LOS CUATRO ELEMENTOS**
**LAU ELEMENTUEN ERRONKA**
Eneko e Iker Pou
SUA EDIZIOAK






*Yakumama*, *Leve Leve* y *Waa Shakir*, *Rayu*… todas ellas con una historia detrás, esa que nos han contado en estas páginas.

A lo largo de todos esos kilómetros, les prometo que nos hemos reído un montón, hemos comido de maravilla, hemos pasado miedo y frío, recibido golpes, participado en rescates, llorado y maldecido, disfrutado como niños, gozado con plenitud… Hemos vivido a tope cada kilómetro de carretera y avión, cada aproximación a las paredes y cada centímetro de piedra, cada segundo con las personas que hemos conocido en cada aventura. Y hemos despedido a algunos amigos que perdieron la vida en su aventura particular y dejaron tras de sí una estela de amor que nos tocó el alma.

Todo ha quedado recogido en este libro, *El desafío de Los Cuatro Elementos*, una excelente combinación de escalada y alta montaña. Es un libro de aventuras, las de Eneko e Iker Pou, donde nos describen escaladas complicadas y muchas anécdotas. Solo nos queda compartir con ustedes, queridos lectores, esta pasión por la montaña y los amaneceres silenciosos. Vengan, siéntense a nuestro lado en esta estrecha repisa, tomen aire y no aparten los ojos del horizonte, el espectáculo está garantizado.

Por cierto, ahora, cuando lleguemos a la cumbre no se entretengan demasiado. Será un abrazo rápido y un choque de manos ligero. Aún nos queda un largo descenso mediante rápeles y sobre el horizonte veo unas nubes que no me gustan nada… ¡Eneko, Iker, en marcha!

**ARGIÑE AREITIO**
Editora

## NOBEDADEAK




**EXPLORA TAILANDIA (LONELY PLANET)**
Amy Bensema
GEOPLANETA

Conoce tribus de la montaña o pueblos pesqueros, descubre la naturaleza en los parques nacionales, presencia rituales en templos sagrados, sumérgete en aguas cristalinas y emerge en playas de arena blanca…




**EUSKAL HERRIKO FAUNA GIDA**
Iker Elosegi
SUA EDIZIOAK

Liburu honen xedea lurralde txiki honetan bizi diren animalia basatiekiko jakin-mina piztea da. Orotara, 150etik gora animalia aipatzen baditu ere, liburua ez da espezie-katalogo bat. Animalia horien gaineko jakintza zabaltzera eta inguruмena hobeki ulertzeko gakoak ematera dator.




**SOBREVIVIR MIENTRAS LLEGA EL RESCATE**
Jordi Fernández
DESNIVEL

Este libro está pensado par personas que buscan optimizar sus habilidades en situaciones de riesgo. Aprenderás a entrenar tu mente y cuerpo, perfeccionando tus técnicas e interiorizando cómo actuar en caso de emergencia.




**SEVILLA GUÍA VERDE WEEK&GO**
Daniela Celli
MICHELÍN

La guía verde Week&Go se caracteriza por su confiabilidad y por el profundo análisis cultural. La de Sevilla no es una excepción, ya que proporciona información detallada sobre los monumentos, museos y restaurantes, con mapa incluido.




**BRETAÑA Y NORMANDÍA ESENCIALES**
Philipe Glouaguen
ANAYA

Bretaña avanza hacia el océano Atlántico y termina en Finistère, con su silueta de tridente. Difícil encontrar una costa más fracturada, más imprevisible, más original que el litoral bretón. Normandía es algo así como la campiña de París.




**RUTAS PARA FOTOGRAFIAR LA NATURALEZA**
Xabier Sukunza
SUA EDIZIOAK

Este extraordinario libro cautiva desde la portada hasta su última página. La belleza de su fotografía viene acompañada de explicaciones sobre cómo obtener imágenes de esa calidad y una veintena larga de rutas en la fotografía naturaleza para adiestrar nuestro ojo.




# BIDASOA

## 2018-2023

## Dokumentala eta soinu-banda plazaratu ditu Fermin Muguruzak




**BIDASOA 2018-2023** DVD-CD
Fermin Muguruza
ELKAR - TALKA

**Noizean behin, musika injustiziaren aurka altxatzen da, bere ahots ozena baliatuz kontzientziak astintzeko eta mezuak lau haizetara zabaltzeko. Horietakoa da *Bidasoa 2018-2023* dokumentala eta bere soinu-banda biltzen duen cda. Fermin Muguruzak ondu du, musikari andana baten ekarpenekin, ibai ederraren ertzean politika arrazistek eragiten duten heriotza ugariren salaketa gisa.**

Nekez uzten du sorterria sustraiak han dituenak, idatzi zuen **Joseba Sarrionandia**k erbeste urrunetik. Eta utzi behar izanez gero, erbesterako bidea ere nekeza izaten da. Nekeza eta hilkorra. Sustraiak sorterrian ditu **Fermin Muguruza**k, sendo atxikita, eta horregatik sentitu du bere jaioterriko ibaiaren gainean zabaldu den herio itzala salatzeko premia. Bidasoak hil egiten duela hasi dira esaten. Ur-bazterretan hilotz beltzak agertzen hasi dira.

2018an, Frantziako gobernuaren erabaki batek heriotza erein zuen Bidasoa ibaiko uretan eta ibarretan. Lehenago ere izan da ibai hori herio ibaia, ez da, hortaz, kontu berri-berria. Baina oraingo honetan hilketak, mingarriak berez, are lazgarriagoak dira arrazismoaren ondorio diren neurrian: afrikarrak ehizaki bilakatu dituzte Bidasoako ertzean. Izan ere, Frantziako agintariek muga itxi diete Afrikatik Europara datozenei eta, horren ondorioz, isilpean igaro behar izaten dute iparrerako bideari segida eman nahi diotenek, zaindari armadunen begiradatik aparte.

### DOKUMENTALA ETA CDA

Triskantza isil eta anker hori salatzeko lana dokumental eta cd bihurtu du Fermin Muguruzak. Alde batetik, dokumentalak izen-deiturak jarri dizkie biktimei, haien nondik norakoen berri eman du eta politika bihozgabe horiek zelan funtzionatzen duten jaso du. Bestetik, musikazaleon poza, dokumentalaren soinu-banda cd baten bildu du: hamasei doinu eta ia ordubeteko musika saioa.

Muguruzaren lanetan ohi den bezala, makina bat artista eta musika estilo engaiatu dira proiektuan. Ugariak eta elkarren artean desberdinak izan arren, ezaugarri bat dute komunean: Bidasoa ibaia gertukoa dute. Hortik aurrera, nor bere musikarekin, guztiak norabide batean abiatu dira. Ferminek berak bost kantutan hartu du parte. Tartean dira, adibidez, 2019ko Korrikarako egin zuen doinu gogoangarria, *Azoka Eguna*ren bertsio berria edo beste ibai batzuen oihartzunak dakartzan *Brazzaville*.

Gainerako musikarien ekarpenetan ere lan handiak daude. Batzuk aipatzearren, **Petti** erraldoiak *Gerra bakoitzaren ondoan* bikainaz sorginduko gaitu, **Sonakay**k flamenkotik begiratu dio *Txoria txori* ereserkiari eta **Olaia Inziarte**k *Lehengo lepotikan burua* kantu labur eta hipnotikoa ondu du. **Willis Drummond**en *Bidasoa*k ozen aldarrikatzen duenez, "guretzat ez zira sekulan muga izan. Ez dugu onartuko hilerri bihur zaitezen". **Dut**, **Bad Sound**, **Katanga Dub**… ordubeteko musikaldi oparoa gogora ekartzeko "ibaiek ez dutela hiltzen. Ibaia bizitza da, bi ertzak besarkatzen ditu. Migrazio politikek hiltzen dute".

**TOMAS ZABALLA**
Kazetaria




ELKAR 78-1.indd 24 4/11/24 9:11

# HITZAHOTS

**Karlos Gimenez**en olerkiak **Nerea Gorriti**ren ahotsean datoz disko-liburu eder batean



**HITZAHOTS**
Karlos Gimenez · Nerea Gorriti
ELKAR

**Karlos Gimenez** musikariak ez du aurkezpen handirik behar, euskal artista askorekin lan egindakoa dagoelako azken berrogei urteotan. Oraingoan, berriz, musikari ez ezik, olerkari dator, bere poemak musikatu eta **Nerea Gorriti**ren ahotsean grabatu baititu. *Hitzahots* disko-liburu ederrean dator.
Euskal kantugintzako izen handi askorekin aritu izan da **Karlos Gimenez** azken berrogei urteotan, hasi Oskorrirekin eta segi **Imanol**, **Antton Valverde** edo **Xabier Lete**rekin. Pianoa jo eta doinuak moldatu izan ditu Gimenezek. Egile horiekin elkarlanean, euskal olerkari onenen lanak ezagutu zituen. Eta, berak aitortu duen bezala, ezagutza horrek zerbait piztu zuen bere barnean. Poema sorta bat idatzi zuen erdaraz (*La voz rendida*, 2016), eta **Jabier Imaz Aierbe**k euskarara itzuli zuen. Emaitzaz zirraratuta, Gimenezek **Nerea Gorriti** abeslari eta aktoreari proposatu zion olerki horietako batzuk grabatzea.
Horrela jaio zen *Hitzahots* disko-liburua, labur kontatuta berez prozesu luze-luzea izan dena. Hamalau olerki musikatu eta, pianoa lagun, Nerea Gorritiren ahotsean entzungo ditugu. Karlos Gimenezek honela azaldu du olerkien muina: "Itsaso zakarretan murgiltzen dira pertsonaiak batzuetan, bakearen, lasaitasunaren, ilusioaren eta desiraren besoetan kulunkatzen besteetan… bizitzaren metafora gorenean bihurtzeko ahaleginean: artea, edo artearen ispilua behintzat".
Gorriti eta Gimenez X5 Kolektiboaren kide dira, **Iñaki Salvador**, **Francisco Herrero** eta **Petti**rekin batera. Diskoa egiteko moduari dagokionez, lehenengo Nerea Gorritik olerkien errezitazioak grabatu zituen. Ondoren, Gimenezek berba horiek girotzen dituzten piano-doinuak sortu zituen. Emaitza, zalantzarik gabe, bikaina da, elkarri elikatzen badiete hitzek eta doinuek.
Liburuan olerki guztiak jaso dituzte. Gainera, **Huizi** anaien ilustrazio ederrez jantzita datoz, olerkien hitzak ingurumari iradokitzailean egoki bildurik.

---

# SASIBALADAK

## Alan Griffinen azken liburua



**SASIBALADAK**
Alan Griffin
AZTARNA

Aztarna argitaletxeak **Alan Griffin** musikariaren azken liburua kaleratu du. *Sasibaladak* du izenburu eta mota horretako 52 kanturen bilduma da. Partiturak, hitzak, komentarioak, jatorrizko testuen eta zernahi hizkuntzatan egindako grabaketen erreferentziak dakartza. Irlandan jaio eta Euskal Herrian errotutako musikaria 2023an hil zen.
*Sasibaladak* kultura idatzia ongi ezagutzen zuten pertsonek idatzi izan dituzte eta mota bitakoak izan daitezke. Gehienak beste hizkuntza batzuetatik ekarritako herri baladen itzulpen edo egokitzapenak dira, baina badira jatorrizko sorkuntza-lanak ere, nahiz eta horietako gehienek balada tradizionaletatik edan egin duten, izan Euskal Herrikoak edo atzerrikoak.
Bilduma eder hau osatzeko, berarekin azken 35 urteotan lan egindako adituen laguntza izan zuen Griffinek: **Irene Aldasoro**, **Juan Garzia**, **Jabier Kaltzakorta**, **Ixiar Artola**, **Ramon Iriarte** eta **Kontxi Irizar** testu eta itzulpenen arloan eta **Juanjo Otxandorena**, **Arkaitz Miner**, **Xabier San Sebastian**, **Zigor Sagarna**, **Iosune Marín** eta **Joxan Goikoetxea** musika arloan. Doinuak jatorrizkoak edo egokituak izan daitezke eta sasibalada bakoitzaren ondoan aurkituko dugun QR kode baten bidez entzun ahalko dira.
